

Txillardegia

Fiesta Nacional

U

dan, 1940 urtean, hamaika urte nuelarik. Gure aitari *Corrida de toros* delakoa zer zen jakitea komeni zitzaigula eta hara eramán gintuen anaia eta biok, Chofreko zezen-plaza zaharrera.

Hasiera, kapa hutsez eta, tira. Entretengarri iruditu zait. Baina gero banderilen txanda tokatu da. Zezena sufrikariotan ikusi dut. Eta plazako ikusleak, aho batez, garrasi ozenetan eta bozkario harrigarrian entzun ditut, behin eta berriz, *Olé!... olé!* ka ari.

Pikadorearen txanda iritsi da gero, berau bere pisu guztiaz haga luze zorrotz hura bultzatzen zuelarik, eta zezenaren bizkar gainetik, odola iturritik bezala isururazten jasan behar izan dut, nazkaturik. Penak eta amorruek bete naute gainezka.

Zezenetako batean —8 toros 8 iragartzten baitzuen kartelak— harrapatu egin du zezenak pikadorearen zaldia. Eta beronek orduan, sabela behealdetik urraturik, bere hesteak zapaltzen ikusi dut. Milaka ikusle anker gupidagabe haiek barrezka lehertzen zirelarik.

Gero ezpata luzea hartu du torerok, eta kolpe bakar batez, edo bigaz, edo hamaikaz —segun eta...— zezen gizagajoa akabatu du. Beronek halako odol zarrastada beldurgarri bota du muturretik, eta erori egin da. Odolputzua berehala estali dute hondarrez.


Hura poza plazan, pasodoble torenoren airetan, zezen hila arrastaka atera dutenean.

Zezenetako batean —edo gehiagotan, ez naiz ongi oroitzen— "*medio toro, medio toro*" entzun dut plazako jendilajea oihuka. Eta oka egiteko gogoia sentitu dut.

Horra *Festa* hitz gutxitan. Odolez blai, izerdi usaina bazterretan, eta *chulería* ugari.

65 urte joan dira geroztik. Eta ez dut inoiz beste korridarik ikusi, ezta behin ere. Ohoretzat daukat.

Eta joan deneko abuztuaren 13an, larunbatarekin, Donostiako Bulebarrean egon nintzen. Niri *Fiesta Nacional* delako horrek, frankistek 40 urtez propaganda tresna guztiez bultzatu zuten horrexek lotsa eta nazka ematen didalako.



RUBÉN PLAZA

Gure etxean ez zegoen zezenen aldeko girorik batere. Aitagandik ikasi nuen nik Eugenio Noel Muñoz izeneko batek —madrildarra!— sekulako kanpaina egin zuela bere bizi guztian barrena —Noel 1936an hil zen— zezenak debekarazteko. Noelek ere nazka eta lotsa sentitzen zituen basakeria asto horren aurrean.

Eta ondoko urteetan, irakurketen ondorioz, ikasi nuen Pio Barojak korridak gorroto zituela bihotzaren erditik. Eta espainiar progresistek (Costa, Jovellanos, Vargas Ponce), baita espainolista amorratu batzuek ere (Unamuno), ahal izan zuten guztia egin zutela 1936 baino lehenago, torturaren apologia ahalkegarri hau erazteko.

Orain Iñaki Azkuna Bilboko alkate jatorra agertu zaigu korriden alde. Bapo!

Donostiakoari, berriz, "ahaztu" egin omen zaio Aste Nagusian *Fiesta Nacional*aren bitartez lortzen den homologazio espainiarrari lekua ematea. Eta Maria San Gil eta gainerako faxista guztiak asaldatu ditu. Noski. Eta "hutsune" hori konpontzen saiatuko dela agindu behar izan du Odónek.

Baina, kasu! Azkuna ez da bakarra bere Alderdian zezenen alde agertzen. Lehendakariak berak behin baino gehiagotan eskaini digu bere lekukotasun lotsagabea ohorezko tendiduan agertuz.

Nahiz Sabino Arana-Goiri zezenen kontrako amorratua izan, jakina denez. Eta nahiz eta PNVk —aspaldiko denboretan, hori bai— erabaki hau hartua izan bere barne araudietan: "*Se castigará con la expulsión del Partido a cuantos tomen parte activa o pasiva en las corridas de toros*".

Baina orain, badakizue, "*Soberanía compartida*"ren garai honetan, PSOEren nola edo hala akordioa lortzea da helburua.

Eta ez da momentua inondik ere zezenketak eta antzekoak gaitzesteko. Ez horixe! Ez zen besterik falta. "*Paris bien vale una misa*" esan zuen hark. Eta

Josu Jon Imazek eta Iñigo Urkulluk gauza bertsua diote: "*Ajuria Enea Bis, bien vale una corrida bestial que otra en el mes de Agosto*". Amén Jesús.

Zer nahi duzue: nazka darit xularme guztietatik. ■

Irakurketen ondorioz ikasi nuen Pio Barojak korridak gorroto zituela bihotzaren erditik. Eta espainiar progresistek (Costa, Jovellanos, Vargas Ponce), baita espainolista amorratu batzuek ere (Unamuno), ahal izan zuten guztia egin zutela 1936 baino lehenago, torturaren apologia ahalkegarri hau erazteko